

Topalekua

87 zk. 2015eko ekaina

junio 2015 - n.º 87

1. orr.: UPV/EHU-ren Gizarte Kontseiluak LII-entzako ordainsari osagarrien V deialdirako probaren onespina

2. orr.: Gizarte Kontseiluak UPV/EHU-ren 2015eko aurrekontua onartu du; guztira 396,55 milioi eurokoa da / Gizarte Kontseiluak ikasketa osagarrien ikastaroen matrikula-prezioak onartu ditu

3. orr.: Agustin Eizagirre, Kontseiluko Presidente Berria

4. orr.: UPV/EHU-ko ikasleen %70 inguruk ikasketak bukatu ondorengo laugarren urtean jada izena emanda zuten Gizarte Segurantzaren / Ministerioak aurkeztu du unibertsitateak nazioarteko bihurtzeko estrategia

UPV/EHU-REN GIZARTE KONTSEILUAK LII-ENTZAKO ORDAINSARI OSAGARRIEN V DEIALDIRAKO PROBAREN ONESPENA

Bilkurak Gizarte Kontseiluak UPV/EHU lan-gile irakasle eta ikertzaileek (LII) eskatu ahalko dute ordainsari osagarria, Eusko Jaurlaritzaren 209/2006 Dekretuak dioena beteaz, irakaskuntzan eta ikerkuntzan euren merituak onesteko ordainsari osagarriak esleitzeari buruzkoa.

Deialdi honen bitartez, Kontseiluak Unibask Agentziari, merituak ebaluatuko dituen, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari eta EAEAN-ren lan-arloko salari jakinaraziko die iragan martxoaren 23an goi epai-mahaiko sala horren ebazpena gauzatuko dela. Euskal Autonomi Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren eskatu ahalko dute euren merituen ebaluazioa hura eska dezaketen irakasleek.

Deialdiak, zeinak irakasleek ordainsari osagarrietan sartzeko edo aurreko deialdietan eman dizkietenak finkatzeko epeak, modua eta bete behar dituzten baldintzak zehazten dituen, hiru mailatan sailkatzen ditu ordainsari osagarriak: A maila, bikaintasuna saritzekoa; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzen duena, eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari eskainitako lana saritzen duena.

2008 eta 2009 urteko graduondokoak lan-munduan sartzeari buruzko azterlana

Bestetik, Urtean behin Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak LANBIDEREn laguntzarekin egiten duen Graduondoko Ikasketen inguruko Azterlanean 2008 eta 2009 promozioak aztertu ditu Kontseiluaren Osoko Bilkurak. Txosten horretan ikusten denez, graduondoko ikasketak bukatu eta hiru edo lau urtera EHUn ikasleen % 77,2 (2009ko sustapena) eta % 72,8 (2008ko sustapena) lanean ari zen eta ia % 92k zuen lanpostu egokia, hau da, tituluari dagokiona.

Graduondoko Hezkuntzako ikasleak Lan-munduan sartzearen inguruko Azterlan horretan ikasketa horietako ikasleen langabeziata 2008an % 25 eta 2009an % 21,4 zela ere azaleratu zen. Ezagutza-eremuen arabera, enplegu maila handiena ikasketa teknikoak burutu zituztenen artean nabaritu zen (% 82,8 -2009ko promozioa- eta % 83,3 -2008ko promozioa-) eta okerrean 2008an Arteak eta Humanitateak ikasi zutenentzat zen (% 61,5) eta osasun arloan 2009an (% 75,0). Graduondokoa egin aurreko lanaren maila eta egin ondorengoa

(3. orrietan jarraitzen du)

GIZARTE KONTSEILUAK UPV/EHU-REN 2015EKO AURREKONTUA ONARTU DU; GUZTIRA 396,55 MILIOI EUROKOA DA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak ez-ohiko bilera egin zuen Bilbon, apirilaren 22an. Bertan, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatearen 2015. urteko ekitaldiko aurrekontua onartu zuen. Aurrekontua 396,55 milioi eurokoa da, hots, aurreko ekitaldikoa baino %0,26 handiagoa (aurrekoa 395,53 milioi eurokoa izan zen).

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak aurrekontua onartzea erabaki zuen, honako hauek aztertu ondoren: batetik, martxoaren 12an UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako Proiektua; eta, bestetik, Gizarte Kontseiluaren Ekonomia eta Finantza Batzordeak proiektu horri buruz igorri duen txostena. Txosten horretan, berritasun nagusiak aztertu ondoren, kapituluaren, programen eta gastu-unitateen arabera finantza-azterketa zehatza egin da, eta zenbait alderdi hobetzeko gomendio batzuk ere jaso dira.

UPV/EHUko ikastegiak berrantolatzearen aldeko txostena

Bestalde, Kontseiluaren Osoko Bilkurak aldeko txostena igorri zuen UPV/EHUko zentroak berrantolatzeko proposamenari buruz. Hortaz, Autonomia Erkidegora helaraziko du, behin betiko onar dadin. Berrantolaketa-proiektuari ekin zitzaion, estatutu berriak eta Unibertsitatearen Plan Estrategikoa onetsi ondoren. Gobernu Kontseiluak azaroaren 27an onartu zuen, unibertsitateko instantzia guztietan eztabaida-prozesu luzea egin eta gero. Berrantolaketa-proiektuak dakar hiru campusak osatzen dituzten 31 fakultate eta eskolak 19 zentroan antolatzea, eta zentro horiei Master eta Doktoretza Eskola ere gehitu behar zaie.

Master ofizialak


Horrez gain, Kontseiluak erabaki zuen –betiere, ANECA eta UNIBASQ erakundeen nahitaezko aldeko txostena lortzen bada–, Hezkuntza Sailari haxe proposatzea: 4 master ofizial berri ezartzea; master bat (“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza”) aldatzea eta beste zazpi kentzea. Hauexek dira ezarpen berriko masterrak:

- Arkitektura
- Industria Antolakuntzaren Ingeniaritza
- Ingeniaritza Termikoa
- Paisaiaren Kudeaketa, Ondarea, Lurraldea eta Hiria

Osoko Bilkurak honako erabaki hauek ere hartu zituen bilera berean:

- Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak eskatuta, Unibertsitatearen Espainiako Elkartearen parte hartzea, Informazio eta Komunikazioaren titulazioekin. Helburuak, besteak beste, fakultate horien garapena sustatzea, euren arteko eta beste herrialdeetakoekin lankidetzak suspertzea,

AURREKONTUAREN BILAKAERA: 2004-2015



eguneratzeko azterketak bultzatzea, irakasleen eta ikertzaileen arteko harremanak sustatzea eta ikasketa-programen kalitatea hobetzea dira.

- Ikasketa Osagarrien Ikastaroetako matrikularen prezioak baliozkotzea:

- ❖ *Itsasketa Espezialitateko Ikastaroa Babesari buruzko Oinarrizko Trebakuntza*
- ❖ *Modelaketa, muntaketa eta planogintza NX Siemens programarekin*
- ❖ *Seminario en Evolución Orgánica: el Modelaje de los Orígenes de la Diversidad Biológica (Eboluzio organikoari buruzko mintegia: aniztasun biologikoaren jatorrien ereduak)*
- ❖ *Gerri-errainetako sarean jarritako eskualde-anestesioa ikastaro teoriko-praktikoa*
- ❖ *Itsasketa Espezialitateko Ikastaroa Babesari buruzko Oinarrizko Trebakuntza (IV.a)*
- ❖ *Itsasketa Espezialitateko Ikastaroa Babesari buruzko Oinarrizko Trebakuntza (V.a)*
- ❖ *Giza Eskubideei buruzko ikastaroa, Donostian*
- ❖ *Seinale bioelektrikoaren tratamendurako kurtsua*

- “Biktimak eskubide, laguntza eta babesari buruzko gutxieneko arauen 2012/29/EB Zuzentarauan” ikastaroaren eta “Emulsion polymerization processes course” ikastaroaren tasak ezartzea.

Azkenik, Osoko Bilkurak aurrekontuaren hainbat aldaketa onartu zituen; Kontseiluaren 2014ko aurrekontuaren likidazio-egoerak aztertu zituen; irakasleen eta ikertzaileen ordain-sari osagarriekin loturiko ebazpenak betearazteko hainbat akordio adostu zituen; eta Hezkuntza Ministerioak aurkeztu duen “Estrategia para la Internacionalización de las Universidades Españolas” txostena aztertu zuen, bai eta “Inserción Laboral de los egresados universitarios. La perspectiva de afiliación a la Seguridad Social” txostena ere. Hezkuntza Ministerioaren eta Gizarte Kontseiluaren Konferentziaren artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz egin da azterlan hori.

GIZARTE KONTSEILUAK IKASKETA OSAGARRIEN IKASTAROEN MATRIKULA-PREZIOAK ONARTU DITU

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak abenduan egin zuen bileran onartu zituen ikasketa osagarrien hiru ikastaroren (Automata programagarrien programe-tarako espezializazioa; Diseinu aeronautikoaren arloko aditua; Ikastaro aurreratua: elementu finituen bidezko simulazioa, kalkulua eta ingeniaritza) matrikula-tasak. Horrez gain, 20 ikastaro gehiagoren tasak baliozkotu zituen; 20 ikastaro horiek 2014-2015eko ikasturtean irakatsiko dira. Era berean, Kontseiluak onartu zituen Giza Zientzien unibertsitate-tituluen (esperientzia-gelak)

prezioak. Titulu horiek hiru campusetan irakasten dira. Halaber, Kontseiluak erabaki zuen Hezkuntza Sailari proposatzea UPV/EHU ezartzea honako master hau: Europa eta Mundu Atlantikoa: boterea, kultura eta gizarte masterra.

Osoko Bilkurak bilera berean bere oniritzia eman zien Unibertsitateak eskatu zituen aurrekontu-aldaketa batzuei, bai eta Gizarte Kontseiluaren beraren finantza-informazioari buruzko 2014ko irailaren 30eko egoerei ere.

Egungo lan-egoera eta aurrekoa. Ezagutza-arloaren arabera. Banaketa ehunekotan

		LANEAN			LANGABEZIAN		IKASTEN / IKASI ZUEN	
		EGUN	IRAGANEAN	Aldea	EGUN	IRAGANEAN	EGUN	IRAGANEAN
		2009ko Prom.						
Jakintza-arloa	Zientzia	%76,2	%30,2	%46,0	%19,0	%22,2	%3,2	%46,0
	Teknikoak	%82,8	%63,8	%19,0	%15,5	%12,1	%1,7	%24,1
	Osasuna	%75,0	%35,6	%39,4	%25,0	%22,0	%0,0	%42,4
	Sozialak eta Juridikoak	%76,1	%46,8	%29,2	%22,5	%29,8	%1,4	%22,0
	Artea eta Humanitateak	%80,0	%62,5	%17,5	%20,0	%25,0	%0,0	%12,5
	2009ko prom. totala	%77,2	%45,4	%31,8	%21,0	%23,7	%1,5	%30,0
		2008ko Prom.						
Jakintza-arloa	Zientzia	%67,9	%25,7	%42,2	%24,4	%20,8	%6,4	%55,8
	Teknikoak	%83,3	%61,0	%22,3	%14,3	%16,7	%2,4	%26,2
	Osasuna	%77,8	%36,5	%41,2	%22,2	%17,8	%0,0	%44,4
	Sozialak eta Juridikoak	%72,8	45,5	%27,3	%26,3	%28,1	%0,9	%26,3
	Artea eta Humanitateak	%61,5	50,0	%11,5	%34,6	%34,6	%3,8	%23,1
	2008ko prom. totala	%72,8	%42,4	%30,4	%24,3	%23,7	%2,6	%36,2
2008-2009 igoera-jaitiera		↑	↑		↓	→	↓	↓

alderatzen baditugu, 2008ko promozioan maila 30,4 puntu areagotu zituztela ikusten da. 2009an, aldiz, 31,8.

Azterlanean hezkuntzaren eta enpleguaren arteko erlazioaren analisia egiten da, eta baita lanpostuen kalitatearen eta egonkortasunarena eta profesionalen ordainsariena ere, besteak beste. **Gizarte Kontseiluaren webgunean, www.gizartekontseilua.eus,** ikus daiteke txosten osoa.

2007an UPV/EHUK Lanbiderekin batera abian jarri zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen Graduondoko Hezkuntzaren inguruko Azterlanak sei promozioaren lan-egoera aztertu du ikasketak bukatu eta hiru urtera (2004-2009). Proiektuaren xedea graduondoko ikasketak burutu aurretik ikasleen lan egoera ikasketak bukatu eta hiru urtera zutenarekin alderatzea zen, eta baita lortutako ikasketa-maila eta betetako lanpostu mota ere. Horrez gain, inkestaren unean zuen enpleguaren ezaugarriak ikertzea eta ikasleek graduondoko ikasketei buruz zuten iritzia ezagutu nahi ziren. Baita

graduondoko hezkuntzaren ondoren lanean hasi ziren ikasleen asebetetze maila eta haien helburuak bete ziren ala ez jakin nahi zen.

2013ko azaroaren eta abenduaren bitartean egin zuren 2008 eta 2009 promozioen azterlanari dagozkion inkestak. Telefonoz egin zitzairen elkarriketa urte horietan UPV/EHUREN graduondoko ikasketak bukatu zuten ikasleen % 63ari.

Bilkurak eztabaidatutako beste hainbat gai

Kontseiluaren Bilkurak ikasketa osagarrien bi ikasturteen matrikulen prezioak finkatu du ("Bitartekaritza lanak jabetza horizontalean. Gatazken prebentzioa, kudeaketa eta konponketa" eta "Aktoreen formazioa: interpretazioa, kreaioa eta performancea") eta beste baten tasak baliozkotu ditu ("Nazioarteko praktiken programa aurreratua". Osoko bilkura berean, Kontseiluak UPV/EHUREN aurrekontuetan hainbat aldaketa egitea onartu du Kontseiluak.

AGUSTIN EIZAGIRRE, KONTSEILUKO PRESIDENTE BERRIA

Hezkuntza sailburuak proposatuta, Iñigo Urkullu lehendakariak Agustin Eizagirre izendatu zuen UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluko presidente, apirilaren 23an. Eizagirrek Asier Aloria ordeztu du karguan. Hortaz, presidente-lanak lehenengo aldiz egin zituen Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ekainaren 3ko bileran. Izendatu berri den presidentea Enpresa Ikasketetan lizentziatua da, eta erantzukizun-karguak izan ditu zenbait enpresatan. Horrez gain, ia bederatzi urtean lan egin du Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsaske-ta Bazkunde Ofizialean; izan ere, bazkunde horretako zuzendari nagusia izan zen bost urtean. Gaur egun,

aholkularitza-lanak egiten ditu zenbait enpresatan, eta hedapen estrategikoari, kudeaketa operatiboari eta zuzendaritza orokorrari buruzko proiektuak zuzentzen ditu.

Kontseilukide berriak

Bestalde, Osoko Bilkuraren azken bileretara bertaratu dira honako kontseilukide berri hauek: Adolfo Apiñá-niz Díaz de Garayo, Juan Manuel Angulo Renes, José Ramón Garai Iturriondobeitia, Inaxio Larrañaga Artola, Iker Marín Pesado, Ainhua Mouriz Ibarra eta Joseba Félix Tobar Arbulu.

UPV/EHU-KO IKASLEEN %70 INGURUK IKASKETAK BUKATU ONDORENGO LAUGARREN URTEAN JADA IZENA EMANDA ZUTEN GIZARTE SEGURANTZAN

UPV/EHUn ikasketak amaitu zituzten ikasleen %45ek ikasketak bukatu eta hurrengo urtean jada izena (alta) emanda zuten Gizarte Segurantzian. Euskadiko unibertsitate publikoen eta pribatuen batez bestekoa baino puntu bat handiagoa da tasa hori; eta Estatuko unibertsitate guztien batez bestekoarekin erkatuta, %1,6 handiagoa da. Ikasketak bukatu ondorengo laugarren urtean, ordea, %67,7 da ehuneko hori (EAEko batez bestekoa baino 0,8 puntu txikiagoa, eta Espainiako batez bestekoa baino 3,3 handiagoa). Hortaz, lehen urtearen eta laugarren urtearen artean, afiliazio-tasak ehuneko 22,7 egin du gora, *Inserción Laboral de los egresados universitarios. La perspectiva de afiliación a la Seguridad Social* deituriko txostenaren arabera. Txosten hori egin da Hezkuntza Ministerioaren eta Gizarte Kontseiluen Konferentziaren artean sinatutako hitzarmenaren esparruan, unibertsitate-tituludunen laneratzemapa zehatz-mehatz eta sakon ezagutzeko.

Gizarte Segurantzako afiliazio-datuei buruzko txostenaz aztertu dute 2009-2010eko taldea, eta, zehazki, graduatutako ikasleen trantsizioa lan-merkatura. Helburua *titulazio lortu ondorengo errealtatearen erradiografia zehatza lortzea izan da. UPV/EHUri dagokionez, hauxe azpimarratzen du:*

- Titulu lortu eta lau urtera, %56,3k goi-mailako tituludunen taldean kotizatzen zuen; %19k erdi-mailako tituludunen taldean; eta lau ikasletatik batek eskuko lanak eta behe-mailako lanak egin zituen.
- Beste baten kontura lan egiten dutenen artean, urtebetea pasa eta gero, %35ek jada mugagabeko kontratua zuen; eta hiru urte geroago, %40,3ra iristen zen ehuneko hori.

- Autonomoen ehuneko %8 da, Espainiako batez bestekoa baino 2,3 puntu txikiagoa. Dena den, zenbait arlotan %14tik gorakoa da: Arkitekturan (%32,9), Kazetaritzan (%21,3), Arteetan (%17,3) eta Zuzenbidean (%14,6).
- Titulazioen arabera, Materialen Ingeniaritzan lizentziadunek dute afiliazio-tasa handiena (%100), laugarren urtean. Atzetik datoz Aktuaritza eta Finantza Zientzietan lizentziatuak (%93,3), Telekomunikazio Ingeniaritzan lizentziatuak (%85,4) eta Automatikan eta Industria Elektronikaren ingeniariak (%84,2).
- Kontrako muturretan daude Herri Lanen Ingeniaritza Teknikokoak (%36,5), Itsas Nabigazioan diplomatuak (%37,5) eta Hispaniar Filologian lizentziatuak (%41,7).
- Eskaera handiko ikasketa gehienek afiliazio-tasa handiak zituzten, zehazki, batez bestekoa baino handiagoak (Medikuntza, %95,1; Informatika Ingeniaritza, %80,4; Industria Ingeniaritza, %76,6; Industria Ingeniaritza Teknikoa, Mekanika Espezializazioan, %74,0; Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan lizentziatuak, %74,3). Eta ikasketa horien inguruko ikasketen tasak ere handiak dira (Enpresa Zientzietan diplomatuak, %63,4; Gizarte Hezkuntzakoak, %65,1; Psikologian lizentziatuak, %70,1). Salbuespenak dira Kazetaritza (%55,3), Arte Ederrak (%47,2) edo Erizaintza (%58,7).

Txosten osoa kontsulta daiteke CCSren webgunean: www.ccsu.es

MINISTERIOAK AURKEZTU DU UNIBERTSITATEAK NAZIOARTEKO BIHURTZEKO ESTRATEGIA

Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiak *Estrategia para la Internacionalización de las Universidades Españolas* deituriko txostena aurkeztu du. Plan horrek lau ardatz nagusi ditu, bai eta 28 jarduera zehatz ere. Helburuak, besteak beste, nazioartean interesa pizten duen unibertsitate-sistema indartsua finkatzea, hezkuntza-kalitatea areagotzea, prestakuntza-programak eta I+Gko jarduerak nazioarteko bihurtzen laguntzea, erakargarritasuna eta nazioarteko lehia hobetzen laguntzea eta ingurune hurbileko garapen sozioekonomikoa bultzatzea dira.

Estrategia horrek sistema bat proposatzen du, eta bertan biltzen ditu helburuak eta jarduketa-ardatzak, neurri sistemikoei buruzkoak. Xedeak honako hauek dira: nazioarteko proiektzio oso handia duen unibertsitate-sistema ezartzea, unibertsitateek nazioartean sortzen duten interesa areagotzea, ingurune nazioarteko lehia sustatzea eta munduko beste ekintza batzuekin lankidetzatza handitzea.

Hori guztia lortzeko, 28 ekintza zehaztu dira, eta 2015eko eta 2016ko lau seihilekoetan mailaz maila ezarri joango dira. Ekintza horiek barne hartzen dituzte, besteak beste, eragileak eta aurreikusitako emaitzak hainbat gairen inguruan, hala nola lege-esparruaren berrikuspenean, mugikortasuna, aintzatespenean, kalitatea, titulazio bateratuak, unibertsitateen eskualdekonpromisoa, etab.

Plan hori garatzeko, Ministerioak aurreikusi du autonomia-erkidegoek estrategia hori batera ezartzea. Horretarako, bai estatuko gobernuak, bai autonomia-erkidegoetako gobernuak orain arte egin dituzten ekintzak eta politikak eguneratu eta lerrokatu dituzte, dagozkien eskumenen eremuetan. Bestalde, jarraitzea egiteko, batzorde bat sortu da, eta kideak izango dira planaren garapenean parte hartzen duten ministerioetako ordezkariak, autonomia-erkidegoetako ordezkariak, Unibertsitateen Kontseiluko ordezkariak eta Gizarte Kontseiluetako ordezkariak.